

ARGAZKIGINTZA > **ARGI-ITZALAK**

Irudi digitala esku-eskura

Aro digitalak argazkilaritzaren ateak zabandu dizkio Rafa Espadari: gertukoa zaio, eta irudiaren hizkuntza ikertzeko oso baliagarria.

IDOIA ETXEBERRIA

Argazkilaritzan hasiberria da Rafa Espada. «Duela lau zapabost urte hasi nintzen». Ez da inoiz gela ilunean ibili, eta, harritzekoa bada ere, bere lehen argazki kamera digitala izan zen. Teknologia berrien txalupan igota ezagutu zuen argazkigintzaren itsasoa. Eta ez dio arraun egiteari utzi. Poliki, etengabe. Argazkiak egitea eta argazkilaritzaz hitz egitea ezinbestekoa bihurtu delako haren bizitzan. Emaitzak ikustea besterik ez dago.

«Beti gustatu izan zait argazkilaritza, eta nire kontu hasi nintzen, baina pixka bat galduta nengibilen, eta ikastaro txiki bat egin nuen Gipuzkoako Argazkilarien Elkartearen». Mundutxo horretan hasi eta berehala, beste argazkizale batzuk ezagutu zituen. Gorka Lasa zarauztarra tarteko. Talde txo bat sortu zuten, eta ia oharkabean, zaletasuna indartzen joan zen: «Orain, astebururo —eta ia egunero— argazkilaritzaz hitz egiten eta argazkiak egiten gabilta».

«Hasi, hasi, lagun batek utzitako kamera analogikoarekin hasi nintzen, baina segituan konturatu nintzen nahiko garestia zela eta ikasteko hobe zela digitala. Beti ibili naiz ordenagailuarekin, eta al-

derdi hori kontrolpean nuenez, kamera digitala aukeratu nuen. Berehala ikusten duzu argazkia ondo ala gaizki dagoen. Bestela, errebelatzera bidali behar duzu...».

Era askotako argazkiak egin ditu: «Hasieran, denetarik egiten duzu gustuko argazkiak bilatzeko. Ni batez ere paisaiak egiten hasi nintzen. Jendea ateratzea baino errazagoa da». Gogoan du lehenengo argazkiak Kristina Enea parkean egin zituela: «Donostian zehar ibiltzen nintzen. Lasai hasi ginen, pixkanaka. Eta koadrilan argazkilaria ofiziala naiz orain; koadrilako haurrei-eta nik ateratzen dizkiet argazkiak», dio barrez.

MUSIKA KONZERTUAK. «Baina gehien gustatzen zaidana musika kontzertuak dira. Eta orain kontzertuak eta natura hila egiten dut batez ere». Ahal duen guztietan darma kamera kontzertuetara. «Momentua, keinuak... Musikariak eta musika tresnak bikote berezia egiten dute, eta bien arteko lotura bilatzen dut». Zertarako? Espadak berarentzat egiten ditu argazkiak, bestelako helbururik gabe; eta lagunei erakusteko. «Ez dut erakusketarik egin, oraingoz»; eta asmo handirik ere ez zaio igartzen: «Esaten didate egiteko, baina lotsa ematen dit. Ikusten ditut beste batzuen argazkiak, eta nireak baino politagoak iruditzen zaizkit, hobeak. Eta horrela gustura nabil!».

Beti darma kamera txiki bat patrikan, badaezpada. Baina asteburuan ateratzen du argazki gehien. «Mendira joatea ere gustatzean zait, eta argazki asko egiten ditut; Club Vasco de Campingekin

■ nortasun agiria

■ **Izena:** Rafa Espada.

■ **Jaio:** Bilbon, 1971n. Baina urtebete egin aurretik donostiartu zen. «Egiakoa naiz».

■ **Ogibidea:** Zarauzko inprenta batean egiten du lan.

■ **Argazkilaritza:** Orain dela lau zapabost urte hasi zen, kamera digitalarekin.

■ **Lehiaketak eta erakusketak:** Ez du erakusketarik jarri orain arte. Argazki lehiaketetara ere ez da aurkezteko: «Lotsa ematen dit. Taldeko besteek aurkezteko dituzte, eta batzuetan irabazi ere bai. Niri ere gustatuko litzaidake aurkezteko, baina alferkeria eta beldurra nahasten dira, eta ez dut inoiz egiten».



■ **Webgunea:** www.rafaespada.com

■ **www.federacionfotovasca.org**

ibiltzen naiz. Eta estudio batean edo etxean ere geratzen gara argazkiak egiteko. Eta batez ere argazkilaritzaz hitz egiteko! Ikasten ari gara, eta gauza berriak probatzea gustatzen zaigu». Zailena estudioko irudiak egitea gertatzen zaiola dio: «Dena kontrolatu behar duzulako: argia, modeloak...». Hiruzpalau lagun elkartzeko dira. «Orain haurrak-eta daude, eta zailagoa da geratzea. Lehen zortzi edo hamar batzen ginen. Baina orain ere Internet bidez egunero gaude harremanetan».

Argazkilaritza digitala oso mundu aldakorra da, beti daude berrikuntzak. Eta Espada eguneko egoten da. Are gehiago: caborian.com webgunea sortu zuten sarean, eta erreferentzia bihurtu da argazkizaleen artean. «Aurreko asteburuan izan dugu hirugarren batzara, Gijonen, argazkilaritza digitalari buruz». Gipuzkoako Argazkilarien Elkartearen webgunea egiteaz ere arduratzen da. Eta berea ere badu, hamaika irudirekin: bidaie-takoak (India, Tunisia, Brasil...), Donostia, Arantzazu, Getaria, Ruper Ordorika, Gatibu taldea...



Tximeleta eta lorea.



Jamie Saft hirukotea.



Santiagoko kale bat (Galizia).



India. Hiru neskatu.